

UNITATEAREN AMAIERAKO JARDUERA

Denboralizazioa	Ordu bat
Materiala	Webguneko ariketa
Helburuak	Unitateetan zehar landu dituzten herrialdeetako abestiak kokatzen ikastea.

Munduan zehar bidaia egin ondoren, abestu eta dantzatu dituzten kantuak berrikusiko dituzte unitate honetan. Horretarako, ikasleek, talde txikietan, kantu bakoitza dagokion herrialdean kokatu beharko dute kontinente bakoitzeko mapa batean. Ondoren, kantu bakoitza zein herrialdetakoa den asmatu beharko dute talde handian; horretarako, gomendatzen da arbel digitala izatea edo, bestela, mapa bat eskura izatea.